

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Immigrazioa eta integrazioa gupidarik gabeko garaian

16.

Immigrazioa eta integrazioa gupidaririk gabeko garaian

Antonio—Izquierdo Escribano

COVID-19arekin, ez da garai onena migratzaileentzat, ezta?

Duela mende erditik, garai txarrak dira migratzaileentzat, eta, segur aski, okerragoak izango dira pandemiaren ondorengoak. **Gaitz horrek geldiarazi eta deskapitalizatu egiten ditu, eta, ELGak jasotako lehen datuen arabera**, haien kutsatze- eta heriotza-tasak bertakoenak baino altuagoak dira. Datu ofizialek gizarte-klasearen araberrako erikortasuna eta heriotzak adierazten dituztenean, egiazta daiteke gaixotasun infekziosoek zaurgarrienei kalte handiagoa egiten dietela.

Kontua da pandemiak lan-prekarietatea larriagotzen duela eta, ondorioz, eragin kaltegarria duela kanpotarren legezko estatusetan. Horren ondorioz, migratzaileen eta haien seme-alaben integrazioak, hau da, bertan jaiotakoekin parekatzeak, atzerapauso nabarmena jasango du. **Covid-19aren ondoriozko krisiak legearen, enpleguaren eta kulturaren arloetan izandako eraginak irregulartasun, bazterkeria eta arrazakeria gehiago ekarriko du.** Eta are sakonago ahulduko da jada hemen dauden etorkinen integrazioa.

Orduan, fluxuak amaituko dira?

Ez, fluxuen etena ez da hain iraunkorra izango. Ihesean doazenen fluxuak ez dira erakarritako fluxuak adina ahulduko. **Fluxuen kopurua asko murriztuko da datozen urteetan, baina integrazio-adierazleak baino lehen berreskuratuko dira.** Zalantzarik gabe, are gehiago zailduko da kualifikazio gutxiagoko etorkinak sartzea, kontrolerako baliabideak areagotuz. Horrek migrazioaren kostuak garestitu egingo ditu. Hala ere, emigratzea erabakitzen duten pertsonak (edozein europarrek imajina dezakeen baino gutxiago dira) bidaiari ekiteko bitartekoak baldin badituzte, ez dira geldituko birusaren beldur direlako.

Eragin bikoitza du, beraz?

Bai. Covid-19aren ondorioz bertan kokatuta dauden etorkinek sakrifizio handiagoak egin beharko dituzte, haientzat integrazioa zailagoa izango baita, baina fluxuei gutxiago eragingo die. Ez da espero itzulera masiborik, eta, denbora-tarte baten ondoren, immigrazioak hazkunde ekonomikoarekiko duen deskonexioa areagotzen joango da, eta deserrotzea eragiten duten arrazoiak dibertsifikatzen. Azken finean, **Covid-19aren krisiak gehiago eta denbora gehiagoz eragingo du jada kokatuta dauden etorkinen integrazioan, emigratzea erabaki dutenen atzera egitean baino.**

Aldaketarik ikusten al duzu migratzeko arrazoietan?

Uste ohi denaren kontrara, esango nuke emigratzeko arrazoi nagusia gaur egun ez dela lana, kontuan hartuta bidaiari arrisku eta oinaze ugariri aurre egin behar zaiola. Bidaiari ekiten dioten gehienak ez dira Europako herrialdeetako lan-eskaintza «desklasatuek» erakarrita etortzen. Edo, erakarpen hori ez da, behintzat, emigrazioaren arriskuekin alderatuta hain indartsua. **Europara migratzeko arrazoi nagusiak dira jatorrizko herrialdeko askatasunik eza, bizi-segurtasunik eza eta gaitasunak garatzeko ezintasuna.**

Joerak aldatzen ari al dira?

Emigratzeko arrazoiak aldaketa horrek bi joera ditu. **Lehenengoa familia-emigrazioak eta arrazoi humanitarioen ondoriozko emigrazioak lortu duten nagusitasunean oinarritzen da.** Bi errubrika **horiek herrialde garatuetarako fluxuen bolumenaren % 50 baino gehiago osatzen dute.** Familiaren motiboa AEBrako migrazioan gailentzen da, eta babesa bilatzearena, berriz, EBrako migrazioan da kausa nagusi.

Bigarren **joera kualifikazio handiko etorkinen eskaria da** (eta kualifikazio gabeko etorkinen demonizazioa), beste hazkunde-aldi batera eramango gaituztelakoan. Hori da, hain zuzen, migrazioak behartzea; hau da, mugitu beharrik ez dutenak erakartzea eta, bestetik, hondamendietatik ihesean dabiltzanei sartzen ez uztea.

Zeri erantzuten diote deskribatu dituzun joera berri horiek?

Migrazio-tradizioak behartzeko ahalegina EBko herrialdeetako gizarte-egituraren segmentazioan oinarritzen da. Lehenik industria-langileen klasea eta, ondoren, zerbitzuen klase ertaina suntsitzeak etorkinen kontrako erreakzio bizia eragiten du. Eta amorrua kanpotar pobreen kontra bideratzen duten alderdi politikoak sortzen dira. Egitura ekonomikoa ere eraldatu egin da, baina kualifikazio gutxiko lanetarako eskulana eskatzen jarraitzen du. Migrazioen kudeaketa kapitalistak, pandemiaren ondoko fasean, epe luzeagoan jaso beharko lituzke koiunturazko komenientziak eta beharrak. Hala ere, azken hauteskundeak gizarte-espasmoen eta eskandalu politikoen artean kokatzen dira, eta, bistakoa denez, ez dago momentuko borrokatik harago pentsatzeko lekurik.

Eta bertako kolektibo batzuen beldurrak hazten ari dira?

Helmugako herrialdeetan gero eta langile eta familia gehiago atsekabetzen dituzten beldurrak hurrengo galderan laburbiltzen dira: *Afrikako paria guztiak Europako ongizateaz gozatzeraz etorriko ote dira?* Eman dezakegun erantzuna honako hau da: emigratuko dutenak ez dira pandemia honek eragingo dituen pobreak izango. Ez dute emigratuko herrialde aberatsetan bazterkeriara egotzitako gehienek, ez eta munduko gainerako herrialdeetako desjabetuek ere. **Ez dute nahiko, eta, seguruenik, ez dute aukerarik izango.** Kolektibo zaurgarrien artean, gehienek ez dute baliabiderik ez informazio nahikorik, eta, gainera, porrotaren eta arriskuaren beldur dira. Jakintzat eman dezagun, aurrerantzean, aukera duten guztiak ere ez dutela emigratzen; benetan nahi dutenen parte batek soilik emigratzen du. Askoz gehiago dira beren komunitatea utzi nahi ez dutenak, utzi ezin dutenak baino.

Baina erabili den terminologiak fenomeno hori kontrolik gabeko bezala irudikatzen du, ezta?

Zalantzarik gabe, komunikabideetan finkatu den terminologiak (oldea, inbasioa, olatua) gorputza ematen diete Europako klase «ertain» izutuen kezkei eta langile pobreen etsipenari. Lehenengoen kezka da etorkinekin lehiatu beharko direla osasun-arreta edo haurren eskolako plaza lortzeko. Eta, horren ondorioz, osasun- eta hezkuntza-sistemak are gehiago kaltetuko ote diren pentsatuko dute. Bigarrenak, berriz, lan-prekarietatea areagotzeak beldurtzen ditu. Due-la hamarkada batzuetatik hasita, hala erakutsi dute Frantziako, Ingalaterrako edo Italiako proletargoek. Azken finean, **alderdi klasikoak beldur dira garai batean etorkinen presentziari beldurrik ez zioten langileak, gizarte-mailan behera egin dutenean kanpotarren kontra agertu direnak, hauteskundeetan matxinatuko ote diren.**

Zer ari zen gertatzen COVIDaren aurreko urteetan?

COVIDaren aurreko hiru urteetan **migrazio iraunkorrek areagotu ziren, humanitarioak murriztu, eta, batez ere, aldi baterako lan-migrazioen kopurua hazi zen**, bai eta unibertsitateko ikasleen iritsierak ere. Hau da, haustura ekonomiko eta finantzarioaren ondoren, etorkinei aldi baterako baimena eman zitzaien eraikuntzan, nekazaritzan, ekoizpenean eta salgaien garraioan lan egiteko. Halaber, kualifikazio handiko langileak (ingeniari informatikoak, medikuak eta erizainak) eta enpresa multinazionalak bidalitako profesional eta taldeak sartzea bultzatu zen. **Urte horietan, etorkinen lan-integrazioan aurrerapauso batzuk eman ziren, baina aldakorrek eta garrantzi gutxiagokoak izan ziren.** Integrazioa lan-merkatu sartzeari baino prozesu konplexu, mantso eta anitzagoa da.

Nolakoa izan da lan-merkatua sartzea?

Azken bost urteotan iritsi diren etorkinak lan-merkatuan sartzeari, bertakoek baino prekarietate handiagoko lan-baldintzetan egon arren (behin-behinekotasuna, langabezia, nahi gabeko lanaldi partzialeko lana), **mesede egin dio 2008-14 urteetako atzeraldiaren ondorengo suspertze ekonomikoak**. Baina haien desabantailak (hizkuntza menderatzeari, eskubideak lortzeari, etxebizitzaren kalitateari eta kontaktuen botere txikiagoari dagozkienak) oztopo handiegia dira bosturteko bakarrean neutralizatzeko. Pandemiaren aurretik, **haien pobrezia-tasa % 30etik gorakoa zen**, pilaketa bertako biztanleenaren bikoitza zen, eta eten digitala haien zaugarritasunari lotuta zegoen. Horretaz gain, kontuan hartu behar da eskulan intentsiboko sektore produktiboetan pilatzen direla etorkinak, hau da, krisietan enplegua suntsitzeko arrisku handia duten sektoreetan.

Eta berriro agertzen da iritzi publikoaren gutxiespena...

Bai, agertokia osatu gabe geratuko litzateke desberdintasunen katalogo horri ez bazaio gehitzen iritzi publikoaren gaitzespen gero eta handiagoa. Erreakzionatzen lehenengoak kualifikazio gutxien zuten langileak izan ziren, eta orain klase ertaineko kolektibo gehiago gehitu zaizkie; lehenik, finantza-krisiak kaltetutakoak, eta, orain, pandemiak kaltetutakoak. **Kualifikazio txikiko nahiz handiko etorkinak** (nekazaritzako jornalariak, banatzaileak, medikuak eta erizainak) **konfinamenduan zehar uztak biltzen, elikagaiak garraiatzen eta gaixoak zaintzen lanean aritu zirelako ebidentzia ez da gai izan gaitzespen hori neutralizatzeko.**

Alegia, COVIDak desberdin eragingo die kokatutako etorkinei eta etorriko direnei

Hipotesi honen arabera, pandemiarekin fluxuek behera egingo dute, baina are eragin handiagoa izango du errefuxiatuen, aldi baterako langileen, duela urte gutxi etorritako etorkin iraunkorren eta familien integrazioan. Bestela esanda, **aukerazkoak ez diren fluxuak, eta**, beraz, fluxu ekonomikotik neurri batean «deskonekatuta» **daudenak, lehenago berreskuratuko dira jada kokatuta dauden etorkinen gizarteratzea baino**. Covid-19ak ezarritako mugiezintasunak dokumentuen irregularitasuna areagotuko du, ziurrenik, langile berrienen, errefuxiatuen eta ikasleen artean.

Fluxuen jatorrira itzuliz, Espainian...

Europar Batasuneko herrialde garatuenekin alderatuta, Espainia atzerapenarekin iritsi da migrazio-trantsiziora. Kapitalismoaren urrezko aroaren amaiera arte, Iberiar penintsularen gehiengoa emigrazio-herrialdea izan zen, kanpoko migrazio-saldo negatiboa zuena. 80ko hamarkadaren erdialdean hasi zen migrazio-alderantzikatzeraz egokitzeko beharrezkoa zen aldaketa politiko eta psikologikoa. XX. mendeko azken hamarkadan entseguak egin ziren, eta baita hanka-sartze batzuk ere migrazioen kudeaketan. Azkenean, XXI. mendearan lehen hamarraldian, bat-batean, «ustekabeko» immigrazioaz jabetu ginen, eta mundu garatuaren bigarren helmuga-herrialde bihurtu ginen.

goeko hamarkadan, langile etorkinen erregularizazioak eta urteko kupoak probatu (eta nahastu) ziren. Kuoten helburua eskulan-beharrak bideratzea zen, eta legeztatze masiboak etorkinen okupazioaren eta dokumentazio faltaren arteko desoreka konpontzeko neurriak ziren. **Erregularizazioek migrazio-politikaren hutsuneak konpentsatzeko balio dute**. Kudeaketaren arloko hanka-sartzeekin batera, frogatu zen atzeritartasunari buruzko legea, hura aplikatzeko araudia eta migrazio-errealitatearen bilakaera ez datozela bat.

Kudeaketaren ezjakintasunaren eta gizartearen onarpenaren artean?

Bai. Gure zorrean, immigrazio herrialde gisa, ezjakintasunaren faktorea dago. Egia da hiru hamarkada eskaseko esperientzia dugula mugako eremu gisa, igarobide gisa eta, aldi berean, gelditzeko eta errotzeko herrialde gisa. **Aldiz, gure alde dugu gizarte migratzaile gisa gogo-esperientzia bizi eta luzea.** Europako salbuespen deitu izan zaio horri. Orain, kontua da ea migrazio-politikan, eta, bereziki, harrerari dagokionean, integrazioaren lehen fasetzat hartuta, aberatsen klubeko kide izatea gailenduko den, edo deserrotzearen memoria.

Era berean, azken hogeita hamar urteetan egiaztatu dugu immigrazio-korronteak, batez ere, klima ekonomikoari erantzuten diotela, baina baita hurbiltasun geografiko eta kulturalari, lotura historikoei eta erabaki politikoei ere. **Fluxuak ez dira kausa bakarrekoak, eta ez dira monokromatikoak.** Jatorrian emigratzera bultzatzen duten egoerek agintzen dute, eta ez Espainiak helmuga desiragarri bezala pizten duen lilurak.

Egoerek?

Egoera politiko batek bultzatu zituen errumaniarrak mende honetako lehen hamarkadaren erdian etortzera, eta beste batek, izaera desberdinekoa izan arren, venezuelarrak emigratzera bultzatu ditu bigarren hamarkada honetako azken bost urteetan. Latinoamerikako migrazioaren gehiengoak **gobernu-aldaketei eta jatorrizko herrialdeetako politika ekonomikoen ondorioei erantzun die. Lotura historiko eta kulturelek jasotzen** ditugun fluxuen beste parte bat ulertzen laguntzen dute. Ez dago garapen-maila desberdineko Europako herrialdeetatik lanera eta bizitzera etortzen den jende guztiaren berri ematen duen arrazoi bakar bat.

Egia esan, azken hogeita hamar urteetan, Espainiaranzko immigrazioa hiru multzo handitan sailka daiteke: Marokoko etorkinen korrontea, XXI. mendearen lehen bosturtekoko latinoamerikanizazio indartsua, eta hamarkada horretako bigarren erdiko Errumaniako immigrazio olatua. **Atzeraldi ekonomiko handiak migrazio-ihes selektiboa eragin zuen, eta uste den baino txikiagoa;** baina 2014az geroztik, Latinoamerikako fluxuek nagusitasuna lortu dute berriro, pandemiak ekarritako hausturara arte. Harreman-sareek Europar Batasunetik kanpoko fluxuen zati bat erregulatzen jarraitzen dute, eta ontzi hauskorretan etortzen direnen immigrazioa ez da gelditzen.

Saldoek gorabeherak izan dituzte, ezta?

Atzeraldi ekonomikoaren urterik gogorrenetan (2010-2014), atzerriarekiko migrazio-saldoa negatiboa izan zen, baina hala ere iristen jarraitzen zuten ehunka mila etorkinek. Iritsierak urtean 300 milatik gora izan ziren, eta irteerak, batez beste, 380 mila. Hala, **finantza- eta enplegu-krisiak iraun zuen bitartean, emigrazioa immigrazioa baino handiagoa izan zen**. 2014tik aurrera, Espainiaren atzerriarekiko migrazio-saldoa gero eta handiagoa izan da. Adibidez, Covid-19aren aurreko urtean 700 mila iritsiera baino gehiago eta 300 mila irteera izan ziren; hala, saldo positiboa 400 mila etorkin baino gehiagokoa izan zen. **Azken hamarkadak, laburbilduz, sarrera-irteeren trafiko handia utzi digu, truke indartsua, eta horrek baieztatzen du immigrazio- eta gurutzatze-herrialde bat garela.**

Beste alde batetik, hamarkada horretan familien elkartzeek eta azken hiru urteetan jazarritakoen immigrazioa bat-batean hazteak (118 mila asilo-eskatzaile soilik 2019an) indartu egiten dute aipatutako hipotesia; hau da, ekonomiaren martxa eta jasotzen ditugun nazioarteko fluxuen zati esanguratsu bat nahikoa deskonektatuta daudela dioena. **Espainia lan-immigrazioko herrialdea izan da, gero familiak kokatzekoa, eta orain iheslarien helmuga** (ordena horretan).

Uneko balantzea?

2019an Espainiako biztanleria hazi egin zen, kanpotarren iritsieraren ondorioz hain zuzen. **Saldo «naturala»** (jaiotzak ken heriotzak) **negatiboa izan zen** (-57 mila pertsona), **baina atzerriarekiko saldo «soziala»** (immigranteak ken emigranteak) **oso positiboa** (+444 mila atzerritar). Eraitza, beraz, immigrazioaren ondorioz biztanleria hazi dela da. Hori horrela da, biztanleria handitzearen alde egon nahiz ez egon.

Zenbaki biribiletan, erroldatutako atzerritarren kopurua 4,7 milioi ingurukoa da, eta etorkinena 6,5 milioitik gorakoa. Beraz, 2 milioi etorkinek jada lortu dute Espainiako nazionalitatea. Hala, edozein iturri estatistiko erabiltzen dugula ere, argi dago Espainiako biztanleetatik % 11 eta % 14 artean jatorri atzerritarrekoak direla. Etorkinak urtetik urtera gehiago izateaz gain, gero eta jatorri ugariagoak dituzte. Bi datu horiek, **etorkinen kopurua handitzeak eta gero eta kultura-heterogeneotasun handiagoa izateak erakusten dute beharrezkoa dela integrazio-politikak ebaluatzea, berrikustea eta indartzea**. Gainera, oinarrian dauden beste hiru joerek sostengatzen dute gure gomendioa.

Zein dira joera horiek?

Lehenengoa da Espainiara etortzeko arrazoiak gero eta gehiago direla. Behin baino gehiagotan esan bezala, lanarekin lotutako migrazioak ez dira kasu guztietara aplikagarriak, eta ez da arrazoi ohikoena ere. **Iraupen luzeko egoaldiak, familia berriro elkartzeko fluxuak eta arrazoi humanitarioengatik etorritakoak areagotzeak lan-fluxuen pisua murriztu dute**. Integrazio-politikaren garrantzia indartzen duen bigarren euskarri enpirikoa da Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren % 85ek egoitza-baimen iraunkorra dutela jada. Hau da, argi dago gelditzeko borondatea dutela. Eta inklusio soziopolitikoa bultzatzeko hirugarren joera da naturalizatutako biztanleriaren stocka etengabe hazten ari dela. Laburbilduz, lehen baino arrazoi anitzagoak daude Espainiara etortzeko, eta gero eta pisu handiagoa dute iraunkortasunak eta nazionalizazioak. Horri gehitu behar zaio azken aldian iritsitako etorkinen zailtasuna beren legezko estatusa lortu eta mantentzeko.

Integraziorako aldeko eta kontrako faktoreak atzematen dira

Biztanleriaren osaera politiko eta kulturala integrazioaren aldekoa da, etorkinen artean europarrak eta latinoamerikarrak baitira nagusi. Banaketa horrek bizkortu egingo luke Collier-en xurgatze-tasa¹. Alde batetik, **EBkoen kasuan, abantaila juridikoa dago**, eta, bestetik, **hispanoamerikarren alde, hizkuntza menderatzea eta naturalizazio erraza**. Hala ere, Espainiako ekonomiaren eta lan-merkatuaren oinarri ahulek eta diskurtso publikoaren hutsalkeriak gure integrazio-gaitasuna oztopatzen dute. Jakina da pandemiak mugatu egin dituela kualifikaziorik eskatzen ez duten zerbitzu eta lanpostuen jarduerak, eta horietan egiten dutela lan Europar Batasunetik kanpoko langile etorkin gehienek. Hori nahikoa argi dago. Aldiz, ekuazio integratzailearen beste muturra, hau da, etorkinei buruzko diskurtso publikoaren arinkeria, gutxiago aztertzen da.

1- Herrialde bateko diaspora zenbat eta handiagoa izan, herrialde horretako biztanle gehiago joango dira helmuga horretara (10 etorkinek 7 herrikide gehiago erakarriko dituzte hamarkada batean). Horiek ez badira harrera-gizartean integratzen eta talde kultural propioa osatzen badute, xurgatze-tasa txikiagoa izango da

Zerk eragiten du diskurtso publikoaren arinkeria hori?

Immigrazioari buruzko diskurtso publikoaren arinkeria da bizi dugun bi aurpegiko egoeraren ondorio. Alde batetik, Europako klub eksklusibora sartzeko atea gara, baina, aldi berean, gizarte gisa, emigrazioa bizitzen jarraitzen dugu. Elite politikoen kontzientzia ez da gai izan bi alderdi horiek integratzeko, eta are gutxiago Europar Batasunetik kanpoko migratzaileen integrazioari buruzko azalpen hegemonikoa artikulatzeko. Izan ere, alde batetik, Espainiako gizartea, emigrazioaren memoria baduen arren, emigrazio garai batean bizi da oraindik. 2008an hasitako atzeraldian, jaiotzezko nahiz naturalizatutako espainiarren irteera oso ezaguna izan zen.

Esperientzia horrek eragiten du, halaber, bertakoek etorkinekiko gutxiespen espliziturik ez izatea ia. Kanpotarrekiko jarrera ulerkorra are goraipagarriagoa zen lan-merkatu oso prekarioaren testuinguruan. Laburbilduz, **oinarri material hauskorren gainean kontzientzia sozial enpatikoa sortu da**. Izan ere, 2018ko Andaluziako hauteskundeetan Vox sartu zen arte, arrazakeria politikoa ez da modu haserre eta indartsuan itxuratu.

Eta horri gehitu behar zaio Espainiak Europar duen kokapena, noski...

Argi dago. Balantzaren beste aldean Europaren presioa eta mugazain papera betetzeko erabilitako baliabideak daude. Mandatu hori obsesio bihurtu da legez kanpoko fluxuak eta immigrazioa kontrolatzeari buruzko diskurtso politikoan. Esan bezala, Espainia igarobide bat da, baina baita immigrazio- eta emigratio-herrialdea ere. Migrazio-bidegurutze batean bizi gara. Lehen aipatu ditugun stockaren eta fluxuen datuek frogatzen dute kanpoko jendea geratzeko asmoz etortzen dela, baina zirkulazio-maila handiaren berri ere ematen dute.

Gizartea eta gobernuak horretaz benetan jabetuko balira, aurreikuspena landuko litzateke eta integrazioan inbertituko litzateke. **Fluxuei aurrea hartzeko, beharrezkoa da harrera-baliabideak izatea, legezko immigrazioa bideratzeko arrazoizko bideak ezartzea eta giza baliabideak eta baliabide materialak gehitzea asilo-eskaerak azkar kudeatzeko.** Iritzi publikoa etengabe informatu beharko litzateke, eta baliabideak inbertitu beharko liriteke hizkuntzaren ikaskuntzan, prestakuntzan, tituluen eta lan-esperientziaren aitorpenean eta, jakina, seme-alaben hezkuntzan.

